

Mintzola Fundazioak eta Euskaltzaindiak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute

2010.eko abenduaren 1ean, *Mintzola* Fundazioak eta Euskaltzaindiak hiru urteko iraupena izango duen lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian. *Mintzola* Fundazioaren izenean Maria Jesus Aranburu presidenteak sinatu zuen eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horrek *Mintzola* Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanean sakontzea du helburu, bereziki euskara, euskal kultura eta, oro har, ahozko-ondarearen egoera ikertu, irakatsi eta zabaltzeko. Josune Zabala Fundazioaren zuzendaria ere izan zen sinatze-ekitaldian.

Hauek dira hitzarmen horren ildo nagusiak:

- Euskaltzaindiak eta *Mintzola* Fundazioak bi erakunde arteko lankidetzaz eta ikertzaileen arteko hartu-emanaz sustatuko dute, ahozko euskararen eta kulturaren eremuan behar bateratzaileen harira jorratuko diren ikerketa, irakaskuntza eta zabalkunde egitasmoetan. Horren harira, *curriculum*aren ondorioetarako eta meritu gisa, *Mintzola* Fundazioak eta Euskaltzaindiak kontuan hartuko dute euren ikertzaileek erakunde bakoitzaren barruan egindako lana.
- Erakunde biek erraztasunak eskainiko dizkiote elkarri beren ikerketa-ondareak eta ezagutza erabiltzeko, eta, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko aukera.
- *Mintzola* Fundazioak Euskaltzaindiaren arauak zabalduko ditu.

- Bereziki, Euskaltzaindiak erantzuna emango die *Mintzola* Fundazioak egindako kontsultei: kontsultok euskal lexikoari, gramatikari, toponimiari, onomastikari, ortografiari eta, oro har, euskararen idatzizko zein ahozko araugintzaren bestelako gaiei buruzkoak direnean. Kontsulta horiek bideratzeko orduan, *Jagonet* zerbitzua erabiltzea sustatuko dute.
- Argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira.
- Erakunde biek elkarren esku jarriko dituzte ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen lan argitaragabeak, hala nola tesiak, monografiak edo bestelako lanak.
- *Mintzola* Fundazioa eta Euskaltzaindia elkarlanean arituko dira, euren bibliotekako euskal funtsak sendotzeko.
- Lankidetzeta-politika bultzatuko dute ikastaroak eta programak sortu eta egin daitezkeen, euskara, euskal kultura eta, oro har, ahozko-ondareari dagozkien eremuetan.

Helburu hauek lortzeko, *Mintzola* Fundazioak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea sortuko dute, lau kide izango dituena, bi Fundazioak izendatuak eta beste biak Akademiak izendatuak.